

Irakaslearen pentsamendua gorputz hezkuntzako joko eta jolasean: Getxoko lehen hezkuntzako ikastetxe baten analisia



Amaia Larrañaga Otaño*

Irakaslearen pentsamendua eskoletan proposatutako jardueratan adierazten da eta ikasleek praktikaturako joko jolasen bane logikaren elementuak aztertzen ikusi dezakegu; hau da, joko eta jolas bakoitzaren espazio eta denborak dituzten egituren harremanak, partaideen arteko erlazioak eta materialaren erabilera. Irakaslearen pentsamenduaren analisi praxeologikoaren bidez, curriculumaren alderdi ezkutua eta praktikaren bidez adierazten diren balore sozialak ere sumatuko ditugu.

Giltza-Hitzak: Hezkuntza. Soin hezkuntza. Bane pentsamendua. Curriculum ezkutua. Balore sozialak.

El pensamiento del profesor se manifiesta en las actividades propuestas en las escuelas y podemos vislumbrarlo al analizar los elementos de la lógica interna de los juegos de diversión y de competición practicados por los alumnos; es decir, las relaciones de estructura espacio-temporal de cada juego, las relaciones entre los participantes y el uso de los materiales. Mediante el análisis praxeológico del pensamiento del profesor, percibiremos también la parte oculta del curriculum y los valores sociales que se expresan a través de la práctica.

Palabras Clave: Educación. Educación física. Pensamiento interno. Curriculum oculto. Valores sociales.

La pensée du professeur se manifeste dans les activités proposées à l'école et elle peut être appréhendée par l'analyse des éléments de la logique interne des jeux de divertissement et de compétition pratiqués par les élèves ; autrement dit, les dynamiques spatio-temporelles de chaque jeu, les relations entre les participants et l'usage du matériel. Par l'analyse praxéologique de la pensée du professeur, nous percevons également le côté occulte du programme et les valeurs sociales qui s'expriment à travers la pratique.

Mots Clé : Éducation. Éducation physique. Pensée interne. Programme occulte. Valeurs sociales.

* UPV / EHU. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fak. Lasarterako errepidea, z/g. 01007 Vitoria / Gasteiz. amaia.larranaga@ehu.es.

SARRERA

Irakasleen hezkuntza esku-hartzeari buruzko pentsamendua eta hauen iriztaren analisia askotan elkarrizketa edo antzeko teknikak erabiliz aztertua izan da. Gure asmoa ikerketa hauek osatzea da, horretarako irakasleak proposatutako joko eta jolasak aztertuko ditugu, hauen praktikaren bidez irakaslearen barne pentsamendua kanporatuko baita.

Soin hezkuntzako eskoletan egiten diren joko jolasen barne logikaren elementuak aztertuko ditugu, hau da, joko jolas bakoitzaren espazio eta denborarekiko harremana, partaideen arteko erlazioak eta materialaren erabilera. Praktikan jarritako jarduera motoreak, bere barne logikaren arabera, berezko balore ezberdinak bultzatuko dituzte, horregatik soin-hezkuntzan, irakaslearen barne pentsamendua, landu nahi dituen aitortutako helburuen gainetik, proposatutako Joko-Jolasetan ageriko da. Irakaslearen pentsamenduaren analisi praxeologikoaren bidez, curriculumaren alderdi ezkutua zein praktikaren bidez adierazten diren balore sozialak ere sumatuko ditugu.

Bizkaiko lurraldean, Getxoko udalerrian dagoen lehen hezkuntzako ikastetxe batetan hasi dugu ikerketa, konkretuki Geroa ikastolan. Geroa ikastola publikoak lerro bateko haur eta lehen hezkuntza etapak eskaintzen ditu, guztira, berrehun eta hogeit hamar ikasle inguru ditu matrikulatuta. Eskola zuzendaritza eta bereziki soin hezkuntzako irakaslearen laguntza eta partehartzea derrigorrezkoa izan da ikerketa honetarako eta irakasleak egunero proposatutako lanaren azterketa izan da ezinbestekoa. Ikerketa honetan 2007/08 ikasturteko lehen hezkuntzako bigarren mailan eta lehen hiruhilabetearen gorputz hezkuntzako eskoletan egin diren jarduerak aztertzen dira. Jarduera hauek irakasleak bere urteroko planifikazioan idatziak edukitzeaz gain eskoletan egin direnak izan dira. Ikasleek egindako saio kopurua hogeita hirukoa izan da, eta hauetan eginiko jarduera guztiak laurogeita bi izan dira.

1. ZER ESPERO DEZAKEGU HEZKUNTZAZ? ETA GORPUTZ HEZKUNTZAZ?

Eskolaren ardura etorkizuneko hiritarrak heztea da. Eguneroko bizitzan eta murgilduak gauden gizartean probetxuz moldatzearen, hezkuntzaren helburua hiritarrak sortzea da: erraztasunez bizitzeko gaitasunak landuz, pertsonen arteko erlazioak sustatuz, eta egoera desberdinak gainditzeko baliabideak eskainiz. Ikastetxeak moldaketa hauetarako beharrezkoak diren baliabideak eskaini behar dizkio ikasleari. Ikaslearen lana berriz, bere buruaren autonomiaren bila, eskolak eskaintutako baliabideak probetxuz erabiliz, bizipenak pilatzea izango da. Etxean eta eskolan bizitako esperientziak izango dira ikaslearentzat bere biziaren oinarria eraikiko dutenak. Irakasleak kolore aukera desberdinak eskaini beharko dizkio ikasleari eta hauen bizipenak ahalik eta aberasgarrienak izatea izango du helburu bezala. Arlo desberdinetan, jokabide-aukera desberdinak sustatuz eraikiko ditu eskolak etorkizuneko gizartearen baloreak. Heziketa fisikoa, jokabide motorren pedagogia izanik, norberarekiko garapenean eta hiritartasunean hezteko baliagarria izango da, beti ere eskolak eta irakasleek ontzat hartzen dituzten baloretan

oinarrituz. Heziketa fisikoan proposatutako jarduera desberdinen barne logikaren konbinaketaren bidez lortuko du irakasleak bere ikasleak balore batzuekin edo besteekin heztea eta urteetan zehar bizitako jarduera guzti hauek sortuko dute etorkizuneko hiritarra. Irakaslearen barne pentsamendua agerian jartzearekin bere baloreak ezagutuko ditugu eta bide batez gizartearekin konparatu ere.

2. ELEMENTUEN ANALISIA

2.1. Espazioaren erabilera

Proposatutako jarduerak bi motatako espaziotan praktikatu daitezke, eremu egonkorrean eta aldakorrean. Batean edo bestean praktikatzeak ikasleri esperientzia desberdinak bizi araziko dizkio, hauen aukeraketak, jarduleari balore eta ikasketa desberdinak eskainiz.

Espazio ziurrak, izenak dioen bezala, ziurtasuna eskaintzen dio ikasleari, erabiltzen diren esparruak ezagunak dira eta ezagutze honek konfiantza sortzen du umeengan. Erabilitako espazio egonkorak, patioa, gimnasioa edo frontoia, eskolan egunero erabilitakoak eta dastatutakoak dira, jolastorduetan, bazkaldu eta gero, eskoletara sartu baino lehen, eta egunerokotasun horrek ikasleari babesa eskaintzen dio. Espazio ezagun hauetan ikasleak orduak pasatzen ditu, eskolako eremuen babesean baitaude. Txoko guztien ezaugarrien jabe izaten dira ikasleak. Ezkutatzeko aproposak diren izkinak, futbol zelaiak dagoen ate baxuena edo eta frontoi zaharreko malda beraren ezagutzaile. Ziurrak diren gune hauek, egun batetik bestera aldatzen ez direnak, eta urtetan zehar egonkor mantentzen direnak, umeen konfiantza eraikitzen dute eta hauetan ikaslea etxean bezala sentitzen da.


Espazio ziurgabeak kontrako sentsazioak eskainiko dizkio ikasleari, espazio aldakor batetara moldatzeko beharra sortuz. Eremu aldakorak, naturak eskaintzen dizkiguten espazioak, minuturo aldatzen doaz eta ikaslea eta hauengan sortzen den erlazio baikorra ezinbestekoa izango da jarduera edo joko-jolasa aurrera eramateko. Inguru naturalean, hauek eskaintzen diguten indarrei erronka egiten zaie eta jarduera egiteko ezinbestekoa den arreta honek, ikasleengan bizi-pen desberdinak sor arazten ditu. Naturan praktikaturako jarduerak arriskuaren plazera sorraraziko dio ikasleari eta plazer honen bizipena izango da, jarduera hauen ezaugarri garrantzitsu bat.

Heziketa fisikoaren praktikatutako ditugun bi espazio mota hauen artean, Geroa ikastetxeko irakasleak eremu ziurra erabili du bere joko eta jolasak proposatzera-koan, hau da, ikasleek eginiko jarduera guztiak, ehuneko ehunak, gizakiak moldatutako espazioetan praktikatu dira, frontoia, patioa eta gimnasioaren espazioa ezagunak eta babestuak protagonistak izanik; naturak, batere zer ikusirik ez duen eremuetan. Kasu honetan proposatutako aukerak ikasleen bizipen kolore sorta murriztu egiten du eta naturarekiko harremana eta ikasleari erlazio honek sor arazten dizkion onurak ez dira garrantzitsuak irakaslearentzat. Bere aukerarekin espazio ziurraren aukeraketarekin, ziurgabetasunaren arriskuaz desegin baita eta

honekin batera egoera ez kontrolatzeak ikasleari sortarazten dieten plazer sentsazioetaz ere.

Jarduerak burutu diren inguruneari buruzko datu hau esanguratsua bihurtzen zaigu, eta eskolak, murgilduak gauden gizarteak bezala funtzionatzen duela adierazten digu; gizarteak dituen ohiturak bereak eginaz, eskolako espazioak domestikatuz, egonkorrak bihurtuz, babestuz, arriskurik gabeko espazioak sortuz. Kasu honetan, Geroa ikastolako frontoiak, patioak eta gimnasioak erabiliz, etxeak sortarazten dion babesaren sentsazio berbera eskainiko zaio ikasleari.

Espazioarekiko harremana




2.2. Denboraren neurriak

Joko eta jolas guztiak bi motatako denborarekin neurtu daitezke. Batzuetan, jardueraren barne logikak adieraziko du joko edo jolasaren bukaera. Jokoaren amaiera berezkoa duen denboraren egituraketan egongo da, bai distantzia konkretu bat zeharkatu behar delako, denbora epea bukatzen delako edo eta tanteoak jokoaren amaiera adierazia duelako. Kasu hauetan jokariari ezin du ezer egin hau horrela ez izateko, ez dago bere esku jokoaren bukaeraren kontrola eta berak nahi edo ez jokoaren arauetan idatzia dago honen amaiera noiz izango den. Irabazlea, klasifikazio edo ranking moduko zerbait duten jokoak, konparaketara bultzatzen gaituzte, lehenengoa eta azkenaren arteko maila desberdina adierazten dute, hoberena eta txarraren arteko diferentzia eta modu batez honek dakarren balore sozialen eraginen zama. Irabaztea, lehenengoa iristea, bizkorrena edo indartsuena izatea da jokatzearen helburu bakarra. Honelako jarduerak irabaztearen plazeraren bila bultzatzen du partaidea, hau baita jokoari zentzua ematen diona.

Beste kasu batzuetan berriz, jolasaren bukaera, kanpo logikaren elementuren batengatik ezarria izango da. Jolas hauetan bukaera ez dago jokoaren egituran arautua eta amaiera beste zerbaitegatik izaten da: irakaslearen agindua, eskolaren amaiera, edo partehartzaileen erabaki adostua. Jolas hauen bidez partekatzeko plazera landuko dugu. Hauetan ez dago irabazlerik eta ez galtzailerik, ez dago sailkapenik eta rankingik. Denak dira irabazle, jolastea delako helburua eta honekin batera edozein roletan disfrutatzea, harrapatzaile edo harrapatuaren paperean, polizia edo lapurraren azalean izan, denak dituzte aukera berdinak, hau izanik jolasaren ezaugarri garrantzitsuenetako bat, neurri gabeko bukaeraren ezaugarri boteretsua.

Geroa ikastetxeko irakasleak azken hauek aukeratu ditu batez ere bere ikasleek praktikatzen irabazlerik ez dutenak, jolasaren berezko bukaerarik gabekoak. Jarduera guztien ehuneko laurogei eta bost emaitza gordetzen ez den irabazle gabekoak izan dira, sailkapenik gabekoak, jolastearekin bakarrik irabazle sentitzen laguntzen duten horietakoak, berdintasuna sustatzen dutenak; aldiz ehuneko hamabost, memorian gorde, klasifikatu eta garailea dutenen kontra. Irakaslearen joera honek argi adierazten du, irakaslearen aukera, jokabide motor desberdinen bizipena dela, jardueretatik lortutako garapena edo emaitzen kontra. Klaseko partaide guztien arteko partekatzea da helburua eta hauen bitartez, eman, hartu, lagundu eta banatzearen baloreak biziartzea; gure gizartean, etxekoaren artean, familian egiten dugun bezala, konparaketarik eta irabazlerik gabe.

Denborarekiko erlazioa



2.3. Partaideen arteko elkarrekintzak

Joko eta jolas desberdinen praktikak bi harreman mota ematen ditu: erlazio psikomotorra eta soziomotorra. Batak eta besteak garrantzitsuak izanik, ikasleen balore eta desio desberdinak sustatuko dira bi motatako praktiken bitartez. Egoera psikomotorren bidez ikasleak bere bakarkako gaitasunen garapena lortuko du, norberaren balore indibiduala bultzatuz. Praktika psikomotorrak norberaren bakardadera bultzatzen du ikaslea, eta inoren ezbeharraren aurrean bere alderdi baikorrak eta ezkorrak agerian jarriko dira. Ikaslea praktika hauen bidez ondokoarekin konparatu daiteke eta bakarkako gaitasunen hobekuntzara bultzatzen gaituzten ondorioz, klasifikazio ezkutua sortzera ere. Pertsonaren gaitasunen hobekuntza indibiduala izango da garrantzitsuena baina talde bateko partaideak direnez, gaitasun hauen bakoitzaren mailaren rankina klaseko partaide guztien azpi pentsamendu ezkutuan izango da grabatua, baita irakaslearenean ere.


Egoera soziomotorretan berriz, jardule ikasleak elkarrekintzan arituko dira; kide edo arerioekin komunikatu beharrean gertatuko dira, mezuak adierazteko edo ezkutatzeko, emozioak hartu eta emateko. Egoera hauetan ikasleak baloia edo pilota noiz pasa behar duen ikasten du, noiz harrapatu edo eta noiz bultzatu; nori lagundu eta norekin ezkutatu erabakitzen du eta erlazioatzeko ehunka modu desberdin bititzen ditu.

Kooperazio edo oposiziozko erlazioan, rola aldatuz, laguntzen edo besarkatzen, emozioak adierazi eta sustatzen dituzten harremanetan. Ikasleak norbera eta kidea errespetuz tratatzen, elkarbititzen duen bitartean, ikasten du bititzen. Partaideak elkarbanatzen bititzen ditu emozioak, onak eta txarrak, poza eta amorrua sorraraziko diotenak, frustrazioak eta gorespenak, taldearenak, bereak ere izango dira.

Praktika soziomotorrak, izango dira, ikaslea talde baten partaide denaren sententzioa islatuko diotenak eta sentimendu hauek bizi osoan mantendu, gogoratu eta gozatzeko aukera emango diotenak. Taldearen ezaugarriak, taldearen onurak eta alderdi ezkorrek ere, norberarenak izango dira betirako. Talde baten partaide denaren sententzioak bizi arazten. Nork ez du esan noizbait, "hau, nire gelakoa da" eta horrek berezkoa duen esanahia ulertu!

Geroa ikastolako irakasleak proposatutako joko eta jolasetatik ehuneko laurogei eta hamaika soziomotorrak izan dira; irakaslearentzat, ikasleen arteko harremana da garrantzitsuena; pertsonaren balore indibidualaren aurrean, banatutako akzioak dira garrantzitsuenak, mugimendu mekanizatuaren kontra. Elkarrekintzetako jarduerak ezinbestekoak dira irakaslearentzat eta hau proposatutako aktibitateetan islatzen da. Jarduera psikomotorrak berriz, bakarkako garapena lortzen dutenak, ehuneko bederatziko emaitza txiki-txikiaren presentzia izan dute.

Partaideen arteko erlazioak



2.4. Erabilitako materiala


Teknologiaren garaian bizi gara eta hau egunerokotasuneko edozein arlotan ikusi genezake. Eskola, gizartearen pare joateko beharrean dagoelarik, teknologia berrietan eguneratua egoteko esfortzua egiten ari da. Eusko autonomia erkidegoan eskola publikoak ere apustua egiten du arlo desberdinetan hain garrantzitsuak diren material berrietan eguneratuak izateko. Hau dela eta, ordenagailu, arbela digitala edo bideo moderno horietako bat ez duen ikastetxerik ez dago gaur egun. Geroa ikastola ere modernizazio prozesu honetan murgildua dagoela adierazten du bere eskoletarako aukeratzen dituen material berriei, edozein gelatan ikusi ditzakegu lehen aipatutako material horiek. Jarduera fisikoetan ere berdintsu gertatzen da, teknologiarekin bat zaude, edo ez daukazu zer eginik eskalada, parapentea edo buzeoan esate baterako. Nork ez du ezagutzen gaur egun Fernando Alonsok bere formula bateko kotxarekin duen arazoak edo eta kopa Amerikako belauntzietan erabiltzen diren material sofistikatuak garrantzia. Mendiko jardueratan ere materialaren berrikuntza eta hobekuntza derrigorrezkoa izan da praktikorako eta Euskal-Herrian hainbeste maite dugun txirrindularitzan bizikleten arintasunak eta kirolariaren erropen sofistikazioak bultzakada izugarrikoa eman dio kirolari.

Gizartean gertatzen dena, eskolan ere ematen da eta nola ez heziketa fisikoan. Heziketa fisikoko eskoletan erabiltzen den materiala gizartearen garapenarekin bat doala esan genezake. Erabiltzen diren tresna eta material desberdinak, modernoak dira eta teknologia aldetik eguneratuak daude. Material berriei egingindakoak, pvcko baloi eta pilota koloredunak, moldatutako lastairatsua, tamaina desberdinetako uztai borobilak eta erraz erabili daitezkeen ipar-orratzak aurkitu ditzakegu eskola gehienetako gimnasioetan. Materialaren aukeraketak

askotan jarduera ezberdinak egitearen aukera murriztu edo handituko digu. Ezin baitugu patinatu ez baditugu patinik, ezta patinen gaineko hockeyra jolastu ere. Material asko, eskoletan edukitzeko handiegjak edo eta garestiegjak direnez, alokatu egiten dira, lehen esan dudan bezala ezinezkoa delako piraguan ibiltzea piraguarik gabe. Irakaslearen aukera, dituen edo eta ez dituen material guztien artean selekzioa egitea izango da eta aukeraketa honek, materialaren erabileraren aukeraketak, jarduerari elementu desberdina gehituko dio. Objektuekin egiten diren joko-jolasetan, eta hauen egunerokotasuna hain garrantzitsua dela jakinik, erabilitako materialak garrantzia handia du, modernotasunak, beritasunak, teknologjak, askotan jardueraren praktikarako berrigorritzkoa bihurtzen baita.

Geroa ikastolan egindako joko eta jolasetatik ehuneko hirurogei materialarekin praktikatuak izan dira eta ehuneko berrogei objekturik gabekoak. Honek adierazten du, eskolaren esfortzua nabarmena dela gizartearekin eskutik joateko eta irakaslearen pentsamendua ere teknologjaren garai hauetara egokitua dagoela, datu hau zuhur agertzen bada ere.

Objetuen erabilera



3. KONKLUSIOAK

Geroa ikastetxeko irakasleak proposatutako joko eta jolasak, etxekotutako eremu ziurretan praktikatzeko, konparaketa eta sailkapenik gabekoak dira, taldekideen arteko elkarbizitzaren baloreak bultzatzen dituzte eta objektuen mendeotasuna diskretuki adierazten dute. Errealitate honek, barne logikako elementuen konbinaketa izanik ikaslea eskolan murgildua dagoen giroa erakusten digu, hau da, taldeko egoera berdinetan erlazionatuz eta espazio babestuetan elkar banatuz teknologiaren aldetik eguneratua.

Eskolak etxeko giroa errepikatzen du. Ekintzak garatzen diren eremuetan ziurtasuna eskainiz, norberarekiko akatsak eta ahultasunak ezkutatu eta bertute eta bizipenak potentziatu, taldean egin beharreko jardueratan, taldekideen komunikazioan apostatu eta teknologiaren garapenean oinarrituz. Balore guzti hauen ezaugarriek, ikastetxea, familia handi eta profesionala egiten dute.

Gizartea eta eskolaren baloreen arteko berdintasun honek, Geroa ikastetxeko heziketa fisikoko irakaslearen barne pentsamendua agerian jartzen du eta ezkutuan gordetzen dituen baloreak, jardueren, joko-jolasen bidez eskaintzen ditu. Geroa ikastolan lehen hezkuntzako eskoletan, heziketa fisikoa jarraitzen den korrontea gizartearen isla besterik ez da, eta irakasleak bere ikasleekin, amak etxean bere umeeekin bezala jokatzeko duela adierazten digu, hezkuntza familiarren bidez hezten, eskolan ere, etxean bezala.

BIBLIOGRAFIA

PARLEBAS, Pierre. *Léxico de praxiología motriz*. Barcelona: Paidotribo, 2001

ETXEBESTE OTEGI, Joseba. "Aisiaren bi euskal kontzeptu: jokoa eta jolasa". In: *Eusko Ikaskuntzaren XV. Kongresua: Donostia-Baiona 2001*. Euskal zientzia eta kultura, eta sare telematikoak. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2002; 277-282 or.